Queda para nosotros el grato recuerdo de un entusiasta beasaintarra amante de la naturaleza y la montaña que se llamó:

Julio Martinez de la Hidalga (q.e.p.d.)

EL SECRETARIO
LUIS J. DE LA CALLE

Peluquería **JESUS**



LA PELUQUERIA MIXTA DEL GOIHERRI

RESERVE SU HORA
Teléfono, 88 41 02
Etxe-Ubi
20200 BEASAIN
(Gipuzkoa)

BERECIARTU

ETXEKO JANTZIAK
CORTINAS
ALFOMBRAS
Y TODO TIPO
DE RIELES

Telefonoa 88 04 98
Kale Nagusia, 27

BEASAIN
(Gipuzkoa)

BIKAIN.
olaberria · guipuzcoa · tel. 883012

HALTZARIAK

MVEBLES

bikain

EL TXISTU EN BEASAIN

120 urte dira gutxi gorabehera, Jose Inazio Aranburuk eta Joan Bitor Zabalok Beasaingo lehenengo Txistulari-Banda eratu zutela. Eta Aranburu izenarekin jarraitu du Banda horrek, aurten, orain dela hilabete gutxi Txanbo zena hil arte. XVI. mendean ere berriak badituen musika-tresna honek aparteko jarraipena izan du beraz Aranburu familian. Jose Inazioren seme ziren Modesto eta Santiagok jarraitu zuten, banda Jose Luis Guridirekin hirura igoz. Modestoren semeek eman zioten segida gero eta 1973ko urtekari honen argitarapenean lau senide ageri dira, Modestoren seme eta Jose Inazioren bilobak: Joanito, Luis (oraindik bizi da), Martin eta Ramon. Hain zuzen ere gazteena, Ramon, izan zen gero Banda osoari eutsi ziona eta beasaindar askori ezezik goierritar ugariri ere irakatsi ziena.

1953ko martxoaren 19an (San Jose egunа) kaleratu zen Banda osoa silbote eta guzti. Ahalegin handi haren bidez, urte bereko Pazkoa egunean, egundoko kontzertua eskaini zuten. Han zeuden Aranburu, Iturrioz, Martinez de Trebiño eta Buztindui.

Jarraipena, orduan ikasle zen Joxe Agustin Olanok eman dio. Ondoren Joxe Agustinekin egindako elkarrizketak argitzen ditu xehetasunak. Goierri osoan sortutako txistulari gazteak, egungo Beasaingo Banda bere ikaslez osatua izatea, Joxe Agustinen semea salbu. Bandak bizi duen une ona. Gipuzkoa arloko jardunak.

Gaur egun beste tresna batzurekin orkesta moduan jotzeko egiten ari diren ahaleginak ere hor daude: piano, tronpeta eta abarrekin. Sorozabalen Gernika eta Deba martxak prestatzen ari dira. Txisbotearen aipamena ere egiten da baina ez zuen aurrera egin. Joxe Agustinek 15 ikasleri irakasten die gaur ere eta ziur dago txistuak iraungo duela eta Beasainek Goierriko Txistularitzan gidari izaten jarraituko duela.

Hablar o escribir del txistu en Beasain es tener que retroceder enel tiempo más de un siglo; para aproximarnos con cierta exactitud unos 120 años, cuando dos "errikoshemes" de aquella época, José Ignacio Aramburu y Juan Victor Zabalo formaban la primera Banda de Txistularis que tuvo Beasain. Y con la primera agrupación nacía una saga de txistularis entroncada en un mismo apellido que ha durado hasta hace muy pocos meses. Lo contábamos en esta misma Revista -año 1953- cuando decíamos que la familia Aramburu, toda una institución dentro del arte musical transmitido por medio del ancestral instrumento del que se tenían noticias en el siglo XVI, con José Ignacio se iniciaba una tradición transferida de padres a hijos. Fueron sus hijos, Modesto y Santiago, los que asumieron la responsabilidad de continuar con la Banda que amplió el número a tres, incorporándose José Luis Guridi con el txistu segundo. El primero lo tocaba Modesto siendo Santiago el atabalero. Esta Banda alcanzó gran renombre y prestigio, siendo invitada a tomar parte en cuantos festivales se organizaban. No había fiestas donde no se contara con la Banda de Beasain. Los hijos de Modesto fueron ingresando en la municipal agrupación constituyendo la materia prima que garantizaba la continuidad de la Banda. En la edición de 1973 de esta Revista, se publicaba una emotiva fotografía obtenida el día en que fué homenajeado el más joven y el que más trabajó por el txistu incluso fuera de los límites de Beasain, Ramón "Txanbo". En el histórico documento gráfico aparecen los cuatro hermanos, hijos de Modesto y nietos de José Ignacio. Son: Juanito, Luis, el único que vive, Martín y Ramón.

La historia contemporánea del txistu en Beasain no se concibe sin el benjamín de la familia, recientemente fallecido. Ramón, ejecutante, profesor y compositor, era el que más sabía de cuanto se relaciona con el txistu y su música. El se empeñó, y lo consiguió, que Beasain, su pueblo, contara con una Banda completa: txistu primero y segundo, silbote y atabal. Y esto sucedió en una época difícil, cuando los nuevos gustos de la gente joven se inclinaban por otras formas de entender la música. El baile moderno imponía su dominio sobre el folklore tradicional, la plaza pública se quedaba semidesierta en los intermedios del baile, cuando la Banda de Txistularis ocupaba el kiosko. Ramón pensó que era el momento propicio para resucitar una música que él la llevaba en la sangre. Surge desde la indiferencia su entusiasmo irresistible y de unas conversaciones con las primeras autoridades, nace la idea de formar la Banda completa. Con el beneplácito oficial, la casta del maestro hace lo demás. En poco menos de un mes prepara el silbote, único miembro que falta para lograr el conjunto. El día 19 de marzo, festividad de San José, de 1953, fué la fecha fijada para la primera intervención pública de la Banda. Supimos entonces de la emoción de quien se entregó de lleno, sin parar en sacrificios, a la difícil labor de cumplir su promesa. La diana de aquel día primaveral sonó alegre como nunca y para Ramón Aramburu fué el aval que necesitaba para presentarse el día de Pascua de Resurrección con su Banda Municipal en un concierto de audición que sorprendentemente llevó a la Plaza de San Martín a un público numeroso y un tanto escéptico pero que se entregó pronto con una admiración que arrancó calurosos aplausos que premiaron con creces el trabajo de los cuatro músicos que no podía disimular su emoción. Eran estos: Aramburu, Iturrioz, Martinez de Treviño y Bustinduy. La Banda Municipal de Txistularis había recibido el espaldarazo de los beasaindarras que volvían a enorgullecerse de su agrupación gracias a la fe, conocimientos y dedicación sin límites de un hombre al que Agustín Olano, uno de sus aventajados alumnos y actual sucesor en la dirección del conjunto, conocía muy bien.

Agustín está con nosotros. Sabíamos de sus deseos de traer a estas páginas la continuación de aquella historia que nosotros comenzamos a narrar hace treinta y siete años. Contaba con la colaboración de su maestro que era el que más sabía del txistu en Beasain y en toda su comarca. Pero Dios quiso llevarselo a su lado un día inolvidable del pasado invierno y ahora la historia del viejo instrumento es un mucho la historia de Ramón "Txambo", el último de la saga de los Aramburu que ha dejado tras su desaparición una excelente cosecha de magníficos txistularis.

- Agustín, tú que sabes tanto de lo que Ramón te enseñó, ¿qué es lo que más valoras de su obra al servicio del txistu?

- Sobre todo la amistad y el compañerismo cultivado hasta arracimar los mejores frutos. Y esto derrochando una energía y un ánimo que como si se tratara de un potente imán que atraía sin que te dieras cuenta. Su vigor contagiaba de verdad.

- Esto en lo que respecta a su talante humano, pero en el aspecto técnico ¿qué ha aportado al txistu?

- En toda la comarca y en lo que se refiere a su época, yo no he conocido a nadie que le hiciera sombra. Con su trabajo infatigable en lo que para él era toda su vida, ha dejado un extraordinario vivero, una escuela cuyos resultados se están recogiendo para mayor gloria y disfrute de nuestro viejo instrumento. En la actualidad hay una pléyade de excelentes txistularis, que siempre los ha habido, pero con la diferencia de que los de ahora han evolucionado al ritmo de la evolución y valga la redundancia, del propio txistu, equiparable ahora a cualquier otro instrumento de música en cuanto a posibilidades a nivel de conservatorio.

- Has hablado de la existencia en la comarca de un vivero de txistularis. ¿Ha sido tanta la influencia de Ramón en la realidad de esta auténtica cantera?

- Ramón puso la primera, la segunda y todas las piedras para que hoy podamos hablar del indudable auge del txistu en el Goiherri. Por poner un ejemplo, los componentes de la actual Banda municipal somos alumnos suyos, excepto el atabal que es hjo mío y que por razones de edad y del forzoso retiro del maestro, no pudo asistir a sus clases.

- Has mencionado nuestra Banda, ¿qué posibilidades actuales y futuras tiene?

- Todas. Cumplimos con todos los compromisos que se nos tiene encomendados tanto en la villa como fuera de ella. Nuestra presesncia en los conciertos de txistu que tienen lugar en nuestra provincia es obligada, siendo nuestra preparación constante a base de dos ensayos semanales en el conservatorio.

- Volviendo a las posibilidades del txistu como instrumento, amplía un poco lo que has comentado al principio de la entrevista.

- Efectivamente y retomando el tema, el campo está abierto a muchas viabilidades, como sucede con otros instrumentos y se trabaja en ello escribiendo partituras para orquestas, bandas, etc. Existen obras para txistu y piano, por ejemplo, y aquí en Beasain hemos actuado con trompetas. Lo hicimos en la procesión del pasado año a San Martín y en un concierto posterior. Estamos preparando la Marcha fúnebre de Gernika y la Marcha de Deva, de Sorozabal, con trompas. En esto siempre está presente la labor de Ramón que ya intuía estas grandes posibilidades.

- Nosotros recordamos al respecto su idea de incorporar a la Banda el silbote segundo, experimento que terminó en fracaso y con polémica.

- Fué una idea que tuvo este estudioso de la música, partiendo de los cuatro acordes del piano. Si con este instrumento era posible, ¿por qué no hacerlo con el txistu? Y lo llevó a la práctica después de madurarlo con un compañero de trabajo que se dedicaba a fabricar txistus y residía en Alegría. De forma parecida al saxofón, el silbote segundo se incorporó al conjunto, pero no dió resultado. Le faltaba volumen a su sonido y se descartó la idea. La polémica surgió a razí de publicarse la noticia, porque se descubrió que la idea de Ramón no se podía catalogar como invento, pues, casualmente, en San Sebastián se estaba trabajando sobre la misma teoría con idéntico desenlace. Yo puede asegurar, y doy fe, que fué pura coincidencia de gente aplicada en obtener las máximas posibilidades de nuestro instrumento. Ramón lo era por excelencia.

Agustín Olano, alumno aventajado de Ramón "Txanbo" y director de la Banda Municipal es otro enamorado del txistu. Imparte sus conocimientos a 15 alumnos en el conservatorio de los bajos del Ayuntamiento, todos ellos de Beasain. Antes de dar por terminada la charla y con pleno convencimiento, Agustín asevera: "El txistu seguirá de por vida y Beasain seguirá siendo el norte para toda la comarca y donde se asientan los cimientos del viejo instrumento hacia los más altos niveles".

Que así sea y felices fiestas.

TASO

CASA IMAZ

Tejidos-Confecciones-Ropa hogar

Mayor, 10

BEASAIN

Instalaciones BOSTAK S.L.

SANITARIOS - CALEFACCION
GAS (BUTANO-PROPANO-NATURAL, ETC.)

Avda. Navarra, 41 bajo
Teléfs. Oficina: 88 89 39 - Taller: 88 90 27

20200 BEASAIN
(Guipúzkoa)

IKASTOLAK 25. URTE

En este artículo conmemorativo del 25º aniversario de la Fundación de la Ikastola de Beasain, se resume escuetamente su historia explicando su evolución desde aquella fundación con 25 alumnos en 1965 en un local cedido que por no tener no tenía ni servicios, hasta la realidad actual con unos 1200 alumnos escolarizados totalmente en Euskara desde los 3 hasta los 18 años. Labor ímproba llevada a cabo en medio de un mar de dificultades y sin ayudas oficiales hasta hace poco, gracias a la acción y aportación popular. Todo un ejemplo para demostrar que cuando hay una proposición firme, ningún proyecto es imposible por difícil que parezca. Bien merece una reflexión en los días que vivimos.

1936ko gerra aurreko zenbait ahalegin mamitugabeko gorabehera, Beasainen 1965ko urtarrilaren 7an ireki zen Ikastola lehenengo aldiz San Inazio kaleko orduko 7. zk.an, Ekintza Katolikokoen behegelan. Hiru eta lau urteko 25 neskato-mutikorekin hasi zen Ixabel Olano Andereñoa, ez izateagatik komunik ere gabe.

Lehenengo Zuzendaritza-Batzordea, honako hauek eratu zuten: On Tomas Arregi apaiz J. ak eta Joanito Agirre, Manolo Dorronsoro, Joanito Erguin, Karmelo Olano eta Josetxo Zufiaurre gurasoek.

Urtetik urtera izugarri hazten joan zen eta 1966ko abenduaren 9an Olanoren etxe gurutzetura (Erauskin kaleko 4. era) pasa zen, urte berean 85 ikasle izatera iritsiz.

1969-70 Ikasturtean, sukurtsala zabaldu zuen Ezkiaga auzoan, On Jesus Dorronsororen etxean eta 1971-72 ikasturtean berriz, Foru kaleko 72an beste bat orduko Arozbi tailerraren gainean.

Legeztatu gabeko eskola zen (beste Ikastola guztiak bezalaxe) nahiz eta Parrokiaren babeseko "Jardin de la Infancia" izena izan. 1968-8-11n, Gobernari Zibilak argitaratutako dekretu bat zela bide, legeztatua izan ezean itxia gertatzeko arriskuan jarri zen eta orduan Parroki Eskola bezala (Escuela Parroquial Ntra. Sra. de Loinaz) erregistratu zen.

Inolako dirulaguntza ofizialik gabe, dena guraso eta laguntzaileen bidez finantzatua izan zen lehenengo hamar bat urtetan zehar. Gurasoek berek egin behar izaten zituzten mantenimendu-lanak eta Irakasleek gelak garbitu, kuotak kobratu eta beste hainbat eginkizun. Gainera askotan, hilabete batzuk kobratu gabe egon eta asegururik gabe lan egin. Guzti hori euskaraz irakasteagatik gainera. Enpresa batzuk ere laguntzen zuten (Kooperatibek, CAFek, Indar-ek etab.). Seat 600en zozketak egiten ziren eta Loinatzetan taberna jarri ere bai (1973ko maiatzean lehenengo aldiz).

Hala eta guztiz ere, kudeaketa osoa Batzordeak zeraman (guraso eta bazkideek alegia) eta hori paraje hauetan inoiz ezagutu gabekoa zen ordurarte. Gainera, pedagogia zeharo berri eta desberdinak erabiltzen zituen Ikastolak eta umeak, beste eskoletara ez bezala oso gustora joaten ziren hasiera-hasieratik. Neskatoak eta mutikoak elkarrekin hezten ziren beste ezein eskoletan ez bezala (gaur ia denetan). Ikastolak beraz, benetako iraultza ekarri zuen irakaskuntz arloan, gerora beste ikastetxe askok ere beren ordurarteko izaera aldatzeraino iritsi dena.

1967an, Lekaime Karmeldarrek Beasaindik alde egitean, orduko 7,5 milioitan erosi zen haiek Ikastetxetzat zuten Abariaren etxe zaharberritua. Akzioak, dirujartzeak, Aranealde S.A. sortzea, etab. Urte berean eta 1967-68 Ikasturtean, Alkartasuna Batxilergo-Akademia sortu zen eta klaseak Olanoren etxe gurutzetuan emateari ekin, baina hurrengo Ikasturtean, Karmeliten Ikastetxe izanera (Lizeo zaharra izan zenera) pasa zen. Ikastetxe honek, Beasaingo Ikastolakoak ezezik, eskualdeko Ikastoletako ikasleak ere harzen zituen.

1970ean, egitura-aldaketa gertatu zen Espainiako Hezkuntz Ministraritzan. Ordurarte Lehen Mailako ikasketak 10 urterarte ziren eta gero Oinarrizko Batxilerra 14erarte, jarraian Goimailako Batxilerra eta PREU 17rarte izanik. Gero ordea, Eskolaurrea 6rarte, OHO 6tik 14era eta BBB-UBI 14etik 18ra jarri zituzten, gaur egun ezagutzen ditugun eran. Horien legeztapenak lortzerako ordea izan zen komeriarik!

1972-74 bitartean, gatazka eta ezinkonponduak sortu ziren Beasaingo Ikastolako (Ntra. Sra. de Loinaz) eta Alkartasuna Lizeoko Batzordeen artean. Ikastetxe berria egin beharra zegoen eta ikuspegi desberdinak izan ziren. Elizaren goiordezkariek ere eskuhartu zuten, titularitate ofiziala lagatzekotan, nori eta nola lagatzen zioten garbi jarri nahirik. Bi Batzordeek egin zituzten Ikastetxe berriaren aurreproiektuak, baina azkenean, berriro ere konponbidea iritsi zen eta 1974-6-18an Usurbe zinean egindako Batzarre Nagusiaren ondoren, Batzorde bakar bat egin, titularitatea gurasoen kooperatiba sortuberri batek hartu eta gaur egun ezagutzen den egitura burutu zen.

Maila guztietarako legeztapenak eskuratu ziren eta 1977an, Ikastetxe berria egiteko dirua biltzeko, KILOMETROAK 77 ekintza asmatu zen, Jexux Mari Erguinek Ipar-Ameriketan ikusitako modu bat gauzatuz. Aldi berean, 1969an sortu zen Ikastolen Elkartearekiko harremanak ere normaldu egin ziren, 1972az geroztik Goierrik erdietenak zituen eta.

Bestalde, Irakaslegoaren profesionalizazio osoa eta irakaskuntzarako behar adinako gutxieneko esperientziaren metaketa ere lortu ziren aro horretan eta era horretan, eraketa modu berri eta irakaskuntzarako propioagoa zenari ekin zitzaion.

Lizeo zaharrarekin zor eta lor bazebilen ekonomi arloa, berriarekin areagotu egin zen hori eta gaur egun ere oraindik maileguak zintzilik dira.

Dena dela, 1979-80 Ikasturtean hasi ziren Alkartasuna Lizeo berrian klaseak ematen. Beasaingo Lizeo-Ikastolek 1289 ikasle zituzten une hartan. 1980an inauguratu zen ofizialki orduko Hezkuntz Sailburu zen Pedro Migel Etxenike J.T.P. etorrita. Azpimarratu beharra dago ordea, 1969az geroztik Alkartasuna Lizeoaren babespean bildutako ikaslegoa, Beasaingoa ezezik, Goierriko herri askotakoa izan zela. Ikastolen legeztapen ukatuak zirela bide, Idiazabal, Segura, Zegama eta Zeraingo umeak behintzat honen babespean egon ziren eta beste goragoko maila batzutan, Ataun, Lazkao, Ordizia, Zaldibia, Itsasondo eta abarretako ikasleak ere izan ditu eta baditu irakaskuntza ertainetan. 1974etik aurrera eta 80.eko hamarkadan aurrera egin arte (herri-eskolak etab. euskaldundu arte) ihardun berezia garatu zuen Alkartasuna Lizeoko Guraso-Kooperatibak arlo honetan eta 1979-80 Ikasturtean adibidez, Beasainen bertan zebiltzan aipatutako 1289 ikaslez gainera, beste 588 ikasleren irakaskuntza gobernatzen zen Ikastetxe horretatik, guztira 1877 ikasleren ardura izanez. Beraz, egindakoa, ez da txantxetakoa izan.

Azken urteotan, urtero 1200 ikasle inguru eskolatzen jarraitzen du Eskolaurretik UBIraino eta ikasgelak, oraindik ere, hainbat lekutan barreiatuak ditu: Urbin, Olanoren etxe gurutzatuan, Loinazko San Martin Plazan, Florentzio Axpeko prefabrikatuetan eta Lizeoan bertan. Erakunde publikoek oraindik ere ez diote konpondu Eskolaurre/OHO/BBB-UBI mailek eskatzen duten lehenengo bien batasuna eta hirugarrenaren bereizketa.

Orain, Eskola Publiko bilakatzearen haizeak dabiltza, baina oraindik ez zaio gaiari azken irtenbiderik aurkitu. Bienbitartean, euskaraz bakarrik irakasten duen Ikastetxe bakarra izaten jarraitzen du eta bera bezalakoek irekitako bideari esker, beste Ikastetxeek ere bide berriak hasi dituzte euskalduntze bidean.

Bidenabar esan, lehen bezala orain, herriari eta herritarren euskalgintzako ekintzei beti irekita egon dela eta dagoela Ikastola. Olanoren etxe gurutzetuko Ikastolatik hasita, Gaueskola, Txistularien entseiu, Gazte-Berri zortzikotearen entseiu, dantzarineak, ume-monitoretza eta beste hainbat ekintzaren gune izan dira eta dira Ikastolako aretoak, hasiera-hasieratik horrelakoei leku eginez.

Zorionak bada IKASTOLARI bere ZILAR-EZTEIETAN eta hori horrela izan dadin ahaleginak egin dituzuen guztioi eskerrik beroenak, baina ez ahaztu, helburuak zutik diraiela eta hizkuntz kalitatea hobetzen nahiz hizkuntz erabilpen zabalagoa lortzen, bai irakaskuntza osoa euskaraz jarri arte eta baita kalean euskaraz osoro hitz egitera eta idatziz erabiltzera iritsi arte ere, zeregin handi eta oparoa duela Beasaingo Ikastola den Alkartasuna Lizeoak. Horretan geroz eta sendoago ihardutea opa dizugu.

25. Urteurrenaren Batzorde Prestatzailea.

NOTAS SOBRE ECOLOGIA

LA MINA DE ORO DE ARALAR

Participando el pasado otoño en una charla sobre la problemática de esta Sierra, una de las asistentes, ella, farmaceútica de ORDIZIA, y conocida por **DOÑA LOLA**, comentó de como se hallaba en su poder, recibido a través de una herencia, el plano donde se encontraba una mina de oro en Aralar. Ampliando detalles, venía a relatar que un antepasado suyo junto con una cuadrilla de trabajadores, después de largos y laboriosos días de trabajo, lograron extraer el mineral, del cual obtuvo una onza de oro, que con orgullo enseñaba a sus familiares y amigos.

Hasta aquí este pequeño relato de una de las muchas anécdotas que existen sobre esta Sierra. Con ello no queremos provocar la **"FIEBRE DEL ORO"** en nuestra comarca, pero sí la fiebre por la defensa de uno de los entornos naturales más queridos por los montañeros ecologistas, o porlos simplemente amantes de esa mina de oro que es el **CONJUNTO DE LA SIERRA DE ARALAR**.

Al hacer un repaso del estado actual de los filones y betas de esta mina, observamos que no es muy halagüeño; la pérdida del arbolado alcanza actualmente el 80% de la superficie, ésto supone un enorme freno para la formación de suelo y la consiguiente erosión y decapado de la superficie. Así es constatable la existencia de cerca de un 30% de superficie improductiva por falta de suelo; no hay lecho de tierra y la piedra aflora.

Por otro lado, es notorio cómo desaprensivos abren nuevas vías para obtener accesos rápidos al corazón de la mina, para poder hurtar sus riquezas en corto espacio de tiempo. Estas vías son las pistas que se han construido en los últimos años, como son: **Pista de Intxusti (Lazkao)**, produndización de esta pista hasta **Errekabeltz, Pista de Lareo**, arreglo considerable del piso con motivo de la construcción de la Presa, lo cual ha supuesto un aumento considerable del tráfico de vehículos que acceden por esta pista a Aralar. **Pista de Guardaetxe** a **Igartza (Navarra), Pista de Amezketa (camino de minas)**. Estas pistas hacen posible que los vehículos de cuatro ruedas tengan un acceso fácil y rápido a lugares de esta **Sierra** que hasta entonces solo era posible hacerlo a pie, originando nuevos efectos que degradan el medio, como son, la aparición de basuras en lugares insospechados después de un fin de semana; el hurto de madera (un vehículo puede hacer varios viajes en una jornada), surgimiento de pequeños hoteles, uno de ellos con horario de Pub, es decir: hasta altas horas de la madrugada. Estos están ubicados en **OIDUI** y **BEASKIN**, (cosas impensables de no existir firme para el automóvil).

Quien iba a pensar que en los años que más se ha hablado de **ARALAR** (año 82, identificación de los problemas a través del Estudio de Ordenación de Aralar, realizado por **ARANZADI**, año 89, Plan de Actuación para la Conservación, realizado por Iñaki Aizpuru), es cuando más desmanes se han cometido, cuando la agresión proveniente del factor humano ha sido mayor. A los impactos ya citados anteriormente (proliferación de pistas, surgimiento de hotelitoss), hay que añadir la rotura de langas que prohibían el paso

de vehículos en diversos tramos de las pistas (zona de Lareo y Errekabeltz), la construcción de bañeras para la desinfección de ovejas en zonas lindantes a riachuelos y ríos (**Errekabeltz, Minas de Amezketa**), con el consiguiente peligro que supone el vertido de los líquidos utilizados en estas labores, por su alta toxicidad, y la última rotura de la mangada de **Enirio**, o la tala de 1,5 km. de cerca que protegía la nueva repoblación forestal de **Sastarri**.

Esto hace pensar que aún siendo pocos los que mantienen que la natualeza es un elemento más sujeto a la explotación por la explotación, y la única atención que se le debe de prestar es el de extraer sus riquezas, cuando antes mejor, éstos están ganando la partida a los que creemos que en la **Sierra de Aralar** deben de comenzar a llevarse a cabo las diferentes medidas correctoras y protectoras, encaminadas a recuperar su equilibrio natural, como son: La ordenación del suelo en pastos y arbolado, la extensión del arbolado con repoblaciones, control del ganado con fechas de subida y bajada, regulación y cierre de pistas, regulación sobre edificaciones, su uso y explotación.

No queremos con este final ser agoreros, pero sí lanzar el mensaje de que esta **"MINA DE ORO"** que es **ARALAR** en su conjunto, debe encaminarse a ser considerado **Espacio Natural Protegido**; hacia la consideración de **PARQUE NATURAL** como única forma de mantenerlo protegido de las agresiones por parte de los humanos.

DENUNCIA ECOLOGICA

La cantidad de vertederos incontrolados que se encuentran diseminados a lo largo de Beasain. Pasamos a identificar los más vistosos: Alrededor de **Suministros Loinaz**, en la **N-1**, encontramos restos de construcción, muebles viejos, plásticos, botes de pintura, etc., con los que damos la bienvenida a todos los vehículos por la carretera general a su paso por nuestro pueblo; en la carretera al barrio de **Erauskin** encontramos varios puntos; en uno tenemos colchones, revestimiento de suelos, escombros, plásticos, etc.; más arriba, junto a la fuente de **BASARTE** nuevamente un colchón, botellas, plásticos y todo lo sobrante de las numerosas limpiezas de automóviles que allí tienen lugar; seguimos subiendo, y en el cruce con el cementerio, nace uno nuevo con restos de construcción, vigas de hormigón, etc.

Hay más, muchos más, no menos importantes, en cualquier carretera o camino vecinal (la que va de la **Cruz Roja** a **Olaberría**, o a la **Ermita de San Martin**, o a **Mariaratz**), etc., etc. Quiere decir este proceder, que hay mucho desaprensivo, o quizá, hay mucha falta de información.

GOIERRIKO ASANBLADA
EKOLOGISTA

CONSULTAS DE
NATUROPATIA E
IRIDIOLOGIA
MASAJE
ACUPUNTURA
ESTHETICIEN, ETC.

ELIKADURA NATURALA

OSAKI

ALIMERNTACION
NATURAL

EDIFICIO ETXE-UBI
C/ ORIAMENDI, TEL. 887946

LAZKAO TEL. 88 93 62

BEASAIN

ATENCION JOVENES DEL GOIERRI
Si quereis vestir prendas deportivas, con los modelos y colores más modernos de la actual temporada, acude a KIROLAK-K2 os esperamos

KAIXO GOIERRIKO GAZTEOK!
Azkeneko denboraldi honetako eredu eta koloredun kirol-jantziak nahi badituzue, etor K-2 KIROLAK dendara Zuen zai gaituzue!

Kirolak Sport
K-2

Zaldizurreta, 3 **Tel. 88 16 66** **BEASAIN**

AZTERKETA SOZIOLINGUISTIKOA

El Encargado de Euskara del Ayuntamiento realiza un comentario sobre el Estudio Sociolingüístico de Beasain realizado por Siadeco, cuyo resumen (de la 1ª parte) tuvimos ocasión de ver en la Exposición expuesta del 3 al 11 de febrero y del 6 al 8 de abril de este año. La conclusión, entre otras muchas cosas, es que para un desarrollo normal del idioma, la generación de los adultos y la juventud deben de implicarse a fondo en el tema hablando menos sobre el Euskara y más en Euskara, en todos los aspectos de la vida social.

Siadecok burutzear duen Beasaingo Azterketa Soziolinguistikoaren 1. zatiaren datuak 1989an zehar eskuratu ziren. Datu horien aurrerapena, iazko Beasain Jaietan-en eskaini nizuen eta geroztik, aurtengo Otsailaren 2tik 11ra, Uko EUSKARA BEASAINEN izeneko erakusketa, nahiz eta komunikabideren batzuk bere berririk ia ez eman. Gero gainera, Ikastetxez Ikastetxe pasa zen eta azkenik kalean ere egon zen ikusgai.

Ez zaituztet hemen zenbaki artean ito nahi, baina gutxieneko batzuk aipatu gabe ezin gelditu ordea. Bi gune zituen lehen zati horrek: 1981 eta 1986 urteetako errolda-datuen azterketa eta erkaketa eta herri-bizitzan egiten den Euskararen erabilpena.

EUSKARAREN EZAGUPIDEARI BURUZKO ZERTZELADA BATZUK

Hasteko, Beasain, Ordizia eta Lazkaok ez dute alde gogorrik. Bi lehenek antzeko euskaldun-kopurua dute (% 47,4-% 47,9) eta Lazkaok % 5 gehiago (% 52,2). Alderik nabarmenena ia-euskaldun deituetan dago, Beasainen % 10, Ordizian % 18,1 eta Lazkaon % 14,1. Ondorioz, Beasainen dago erdaldun huts direnen portzentaiarik handiena (% 42,6), Ordizian % 34 eta Lazkaon % 33,7 dagoen bitartean. Guztiak ere 1986ko datuak dira. Horrek noski, Goierriren bihotza nola dagoen erakusten digu eta ahaleginak, hiru herriotan eta Olaberrian ere antzekoak eta batera egin beharra adierazten. Ezinezkoa da hauetako bat zeharo euskalduna izatea eta beste bat zeharo erdalduna. Edo eta gune osoa euskalduntzen da, ala Goierririk ez da euskaldunduko.

Adinari dagokionez eta Beasaingo datuei helduz, 6-9 urtekoek % 63,66ko Euskara-ezagupidea azaltzen dute eta beste % 11,69k zerbai dakitela diote. 1986an artean, % 24,65a erdaldun zen adin horretan. Itxaro dezagun Ikastetxeen lana dela bide, 1991koan zifra hori desagertze-bidean ikustea. Hau da noski daturik baikorrenetakoa.

Ezkorragoei begira, 20-24 urte zituztenen (orain 24-28) erdia bakarrik da euskalduna. Euskaltegiek ez dute beraz oraindik ikasle-gai faltarik.

Beste datu azpimarragarri bat, honako hau da: Hego Euskal Herriko lau probintzietatik kanpo Espainiako Estatuan jaio eta hemen bizi direnen artean, % 3 bakarrik izan da Euskaraz ikasi duena. Espainiako Estatuz kanpo jaio eta hemen bizi direnen arteran ordea, % 13,86ak ikasi du. Bestalde, herrian bertan jaiotakoen % 28ak ere, ez du Euskararik ikasi eta Gipuzkoan jaio eta hemen bizi direnen laurdenak ere ez.

EUSKARAREN ERABILPENAZ ZERTXOBAIT

Gazteak eta helduak dira gutxiena erabiltzen dutenak (% 19,5 eta % 25,3). Umeek % 36,9 eta zaharrek % 52,6. Oro har % 28,4. Zenbait gune bereziki hartuta ordea, emaitzak are okerragoak dira: Polikiroldegia, Azoka eta Futbol-zelaia batera hartuta, gazteek % 5,7 darabilte, helduek % 20,3, umeek % 32,4 eta zaharrek % 60,9. Oro har % 21.

Datu hauek, gune horien antolamenduak eta gizarte-erabilerak Euskara nola baztertzen duen erakusten digute. Kirol inguruko giro erdaltzailea eta prestatzaile, monitore eta gisakoek Ikastetxeetan egindako euskalduntze-lana nola deuseztatzen duten azaltzen dute. 12-14 urte inguruko umeek arlo horren bidez gizarteratzean jasaten duten hizkuntz eta girobortxaketa agertzen da hor. Ezinbestekoa da giro hau aldatzeko neurri zorrotzak hartzea eta edozeren antolatzaile direnek ere, hau kontuan hartu beharko dute, ezen hartzen ez duten heinean, Euskara zokoratzen eta desagerterazten ari bait dira.

Euskara idatzia berriz okerrago dabil. Izenen arloa da landuena, baina Beasainen oraindik ere, laurdenak baino ez dira euskaraz daudenak, beste % 15 elebidunekin. Barneko idazki eta iragarkietan aldiz % 6-8 baino ez euskaraz eta % 27 elebiz (2/3ak erdaraz). Inprimaki eta gisakoetan berriz, % 1,5 bakarrik euskaraz eta % 37,4 bietara. Gero ordea, ikusi egin behar euskaraz zenbat betetzen diren...

Edozein lekutan, kontua erdaraz egiten digute eta ez dugu euskaraz egin diezaguten exijitzen. Jatetxe, denda, kudeategi, Notari, garaje eta gainerakoetan, fakturak nahiz bestelako paper eta testuak, euskaraz exijitzen hasi beharrean gaude. Gutako askoren eta beraien prestakuntz gabeziak ezin gaitzake kondena urtez urte honela jarraitzera. Eskolan egindako euskal inbertsioei fruitua atera beharra dago eta beste gizarte-zerbitzuei ere prestakuntza exijitzen hasi behar dugu.

Beasaingo Elkarteetan, herrian baino euskaldun-proportzio handiagoa dago, baina erabilpena % 11 euskaraz eta % 19,4 bietara azaltzen da, bietarako hau askotan, euskara salteatua baino ez delarik. Bilera eta Batzarretan antzerako zerbait gertatzen da, Batzordeetan ia ez da euskararik erabiltzen eta kanpoko ekintzak, elebidunak dira gehienaz ere, oraindik ere % 21,8 erdara hutsean eginez. Badira gainera Elkarte batzuk, euskaraz ezertxo ere egiten ez dutenak. Eredu honekin, eskolek egin dezaketen lana lurperatzea besterik ez da egiten eta gaztetxoek edozein ekintzaren bidez Elkarteen inguruko kirol edo kultur ihardunetara hurbiltzean, ia erdara besterik ez dute aurkitzen. Gero ez eskatu umeei eta gaztetxoei euskaraz egitea!

Irakaskuntzari dagokionez, azken 4 urteotan gauza batzuk aldatu dira, baina 1986ko datuen arabera, artean % 14a A ereduan zebilen OHOn, % 45,8 BBB-UBIn eta % 66,2 LHn. Gaur egun badakigu OHOn A eredua desagertzear dagoela baina zer gertatzen da BBB-UBIn eta LHn? Ez al dira hauek oraindik ere OHOn euskaldundutako zenbait ikasle erdalduntzen ari? LHn adibidez, ikasle euskaldunen % 40a erdaraz eskolatzen ari zela ikusten da eta ikasle erdaldunak euskalduntzeko gaitasunik gabe gainera. Honek ere zer pentsaturik ematen du. Irakaskuntza Ertainak nagusiki oraindik, euskarazko prestakuntz eskasia eta erdararen aldeko antolamendua direla bide, ikasleak erdalduntzen ari zaizkigu.

Euskanduntze-Alfabetatze ikasketak egiten berriz, 270-300 tarteko kopurua dabil urtero Euskaltegietan azken hiru urtetotan. Zifrek ez dute hortik gora egiten eta % 90 euskalduntzen ari dira, beste % 10ak alfabetatzen. Euskalduntze-arloko % 70 baino gehiago lehenengo lau mailetan dabil, beraz oinarrizko itan jaioak dira eta kanpoan jaiotako oso gutxi dabil ikasten. Erdiak baino gehiago 25 urtez goitikoak dira eta ikasketa-maila altu samarrekoak, nahiz eta gehienak langabetuak izan. Ikasitakoa kalean ezin praktikatu izanaz kexu dira. Prozesua azkartzeko eta giroa aldatzen joateko ordea, oro har, askoz ere jende gehiago ibili behar luke ikasten, bereziki goiko mailetan eta alfabetatzen.

Azkenik, Administrazioari helduz, Udaletxeko langileek, heren bat zeralbiten euskara mintzatua eta idatzia berriz, % 6 euskaraz, % 32 elebiduna eta % 61 erdara hutsean (Legeak Lege). Esan gabe doa, barne-funtzionamenduko dokumenturik garrantzitsuenak zieral erdara hutsezkoak, nahiz eta jakinerazpenak eta gisakoak izan elebidunenak. Euskara hutsezkoak berriz Euskara-Batzordearenak soilik, salbuespenen bat edo beste kenduta.

Ertzaintza berriz okerrago ageri zaigu. % 20ko erabilpen mintzatua euskaraz eta % 10 elebiduna. % 70 erdara hutsean beraz. Idatzian aldiz, % 8,2 euskaraz eta % 57,4 bietara, beste % 34,4a erdaraz hutsez izanik. Azken honetan dokumenturik garrantzitsuenak noski.

Erakunde hauei euskaraz behar adina eritzeko duten prestakuntza eta bitarteko gabezia nabari zaie, bai Legeak agintzen duen elebitasuna betetzeko eta areago oraindik euskaraz duintasunez iharduteko.

INKESTEN EMAITZAK

Azterketaren 2. zatiaren azken emaitzak jakin-zai gauden arren (1989ko Azaroan bilgu ziren datuak), zerbait aurreratu didate Siadecokoek eta ondoren doa horren berri.

Erroldan adierazitako datuekiko ez bide dago desbideraketa nagusirik, gauza pareren batean salbu. Aldatzen denetako bat euskaldun alfabetatuen kopurua da. Erroldan % 39,8 zena, benetan % 26,9 da, hots, aitortuaren % 65a. Erdi-alfabetatuak aldiz alderantziz (%4,2 - % 13,5) eta alfabetatu gabeak erroldan baino % 2,5 gehiago. Euskaldun-kopurua ordea, erroldakoaren ia berdina da.

Ia-euskaldunen arloa da bestea. Erroldan % 10 eta inkestetan % 29,9 nahiz eta horietatik % 17,8 pasiboak izan eta praktikan beste %23,8 erdaldun huts-hutsek bezala jokatu, orotara % 41,6ko multzoa osatuz.

Ondorioz, errolda eta inkesten artean dagoen alde nagusi bakarra, alfabetatzearena da.

Erabilpenari dagokionez berriz, % 42-47 arteko kopuruak erdara bakarrik darabil beti. Aldiz beste % 20-25 batek euskara darabil ahal duen leku guztietan (bere aldetik beti) eta familian % 31raino iristen da. Beste % 33-38ak zenbait arlotan darabil euskara (Ikastetxean, lagunartean, familiako norbaitekin, etab.) edo harreman batzutan, baina ez beti edo gehienetan.

Gehiena beraz, familian erabiltzen da eta ondoren telefonoz hitz egitean. Etxetik kanpo gutxiago eta harreman jakinetan (lagunartean, lantokian, eskolan, ordena honetan).

Irakurri eta idatzi berriz, bai euskaldunek eta bai erdaldunek, erdaraz, erdiek inguru irakurri eta idazten dute normalean. Euskaraz aldiz, euskaldunen laurdenak (egunkariek euskaraz dakartzatenak eta familia arteko nahiz Ikastetxeetatik datozen idazkiak).

Jarrerei dagokienez, baikor dago jendea euskara hedatu eta normalizatzeko, baina horretarako neurriak azkar hartzea eskatzen du. Ezkor gutxi ageri da eta gehienak erdaldunen artean.

Axolagabeak % 11 dira (% 29 erdaldunen artean), % 55ak Euskal Herri osora hedatzea nahi luke eta % 17ak exijitzea, % 23ak aldiz aukeran utziko lukeelarik.

Lehentasuna % 70ak Euskarari eman dio (euskaldunen %90ak eta erdaldunen % 38ak). % 40ak euskara ez jakitearen hutsunea sentitu u noizbait edo nonbait, baina % 10ak (erdaldunen % 28ak) ez du hutsune edo gabezia hori sentitu.

Gehiago ikasten saiatzeko berriz, % 40ak badakiela dio, % 32a ez dago ezer egiteko (erdaldunen % 81a) eta % 26a bakarrik dago zerbait egiteko prest.

AZKEN HITZA

Guzti honen ondoren, nahia eta kemen gabezia dira nabarienak. Alde batetik nahi da, baina beste aldetik ez dago kemenik norberak ahaleginak egiteko. Zerutik eta kosta gabe jaitsiko balitz, agian bai, baina orduak sartu eta trebatzea, hori ez da atsegina.

Konklusioa zera da, mihiz asko maite, baina gero oso eroso eta alfer jokatzen dugula eta erdaldun huts-hutsak ere horrela oso eroso bizi direla, oro har eta salbuespenak salbu, inolako ahaleginik egin gabe. Honek esplikatzen du Beasainen gazte eta helduok Euskara-arloan gehiago ez aurreratu izana.

ANDONI SARRIEGI ESKISABEL
UDALEKO EUSKARA
ARDURADUNA

ECOS DE LA "RESIDENCIA ARANGOITI"

Arangoiti Egoitzako oihartzun nagusienen artean, 1989ko Azaroaren 27an, Ama Birjina Mirarigilearen egunean, Sor Montserraten erlijio-profesako 50. urteurrena ospatzea izan zen.

San Bizente Paulek sortutako Karitateko Ahizpa hauen esku dago bere sorkuntzatik Arangoiti Egoitza.

Ospakizunak, meza bazkalondoko kafea eta hitzaspertua izan ziren, azkenean Sor Montserrati kofradiakoek eta lankideek opari batzuk eskainiz.

Serora txiki honen hainbat urtetako jarduna eskertu zen horrela, nola Arangoitin hala San Jose Ikastetxean burututakoa alegia.

Gaur egun, Arangoitiko Agureez bakarrik arduratzen da, bere maitasun eta onginahi guztia eskainiz.

En la casa, donde aún no hace tantos años fue el Santo Hospital de Beasain, y hoy es la renovada y nueva Residencia ARangoiti, tuvo lugar el pasado año 1989, y en la festividad de la Virgen de la Medalla Milagrosa, 27 de Noviembre, un acontecimiento que merece ser reseñado en las páginas de esta revista anual "Beasain Festivo": me refiero a la celebración de las Bodas de Oro de la profesión religiosa de la Congregación de las H.H. de la Caridad, de Sor Montserrat.

Esta Congregación religiosa de mujeres, fundada por San Vicente de Paul, es la que regenta esta institución pública de la "Residencia Arangoiti", tan beneficiosa para nuestro pueblo y toda su comarca.

Los actos conmemorativos de esta efemérides fueron sencillos: una misa concelebrada de acción de gracias, por la mañana, en la que participaron todas las personas internas y otras muchas del exterior, muy allegadas a la institución y a las religiosas que la regentan. Por la tarde una degustación de café, alrededor de Sor Montserrat, de las celadoras de la Medalla Milagrosa seguida de una alegre tertulia, rematando el acto con la entrega de pequeños obsequios a Sor Montserrat de parte de las celadoras de la cofradía y de las A.T.S. de la Residencia, compañeras de trabajo de la homenajeada. Hubo un verdadero ambiente de fraternidad, alegría, cooperando a ello todos los asistentes.

Más que merecido este homenaje a Sor Montserrat. Esta religiosa, de pequeña estatura física, pero de gran espíritu interior y de un gran corazón, lleno de amor y generosidad, que se ha entregado toda su vida a Dios y a los hombres en toda su riqueza y plenitud. Y cuántos años de estos, aquí, entre nosotros, en Beasain, en el Santo Hospital, hoy convertido en Residencia de las personas de la tercera edad.

Ha sido aquí, entre nosotros, durante muchos años, desde su lugar de trabajo, como profesora en el Colegio de San José, regentado por las mismas religiosas de la Caridad, una extraordinaria formadora y educadora de varias generaciones de mujeres...

Ha sido y lo sigue siendo, la impulsora y la animadora en las actividades de la asociación de la Virgen de la Medalla Milagrosa...

Y, hoy día se encuentra, ilusionada y entregada enteramente a la atención y cuidado de todos los acogidos a la Residencia de ancianos Arangoiti, con la ilusión y el empeño de hacer más humano su entorno, su alrededor, viviendo su vida, pensando en la felicidad ajena. Mujeres como ella, son los verdaderos ángeles de esta tierra, realizando todo trabajo y cualquier trabajo, como un gesto de amor, con lo que nos enseñan y nos muestran la presencia del Amor entre nosotros. Mujeres, como ella, son el testimonio y la prueba viviente de Cristo en esta tierra.

¡Cuánto debemos de agradecer a dios, los beasaindarras, su presencia benéfica entre nosotros! Que estas líneas sirvan para este fin.

SERVICIO MICHELIN **VENTA DE LLANTAS**

NEUMATICOS Y EQUILIBRADOS

NEUMATICOS

JOSE MARTINEZ ARROYO

Teléfs. *Taller:* ***880566*** *- Domic.* ***881669*** ***Barrio***

OLABERRIA

SEASKA HAURRESKOLA

La escuela infantil SEASKA una vez superada la etapa puramente asistencial de sus comienzos se congratula de que por primera vez, el nuevo proyecto de ley de educación actualmente en el parlamento valore nuestro trabajo en el ámbito de la educación, reconociendo la importancia que tiene la etapa 0-3 años, para el futuro desarrollo global de los niños, decir también, que dicha etapa ha sido cubierta en Beasain exclusivamente por nosotros.

A través de la afectividad y estimulación, con el fin de potenciar su máxima autonomía y crear actitudes positivas ante el mundo que le rodea. Posibilitándole utilizar sus dotes naturales para la exploración, imaginación, expresión y desarrollo de la actividad simbólica, animándole a buscar, explorar y que sea curioso. Procurando el mayor número posible de buenas experiencias y que estas estén asociadas al aprendizaje.

La ubicación del centro (Igartza Oleta s/n) así como su estructura pensada desde un principio para este fin, nos facilita muchísimo el llevar a cabo todo lo anteriormente citado. Las salidas diarias de los niños al barrio, dotado de zonas verdes, comercios, aceras, etc. y sobre todo los caminos que nos llevan a los distintos caseríos, casas y las ermitas de Nª Sra. de Loinaz y San Martín, poniendo a los niños en contacto con la naturaleza: río, prados, huertas ovejas y resultando muy apreciadas por ellos y muy enriquecedoras a la vez.

Dentro de todas estas actividades nuestra función es la de conocer el proceso que está en desarrollo y estimularlo. Procurando un ambiente agradable y un ritmo adecuado. Convirtiéndo así, el aprendizaje en una actividad gozosa.

También señalar la importancia que se le ha dado al euskera. Siendo este el idioma exclusivamente utilizado, aprovechando la plasticidad de los niños en esta etapa que posibilita el aprendizaje sin ningún conflicto.

SEASKA haurreskola "guraso elkartearen" babesean eraiki zen, elkarte hau desegitean, ikasleen gurasoen eta langileen elkarte bat sortu zen.

Haurreskola kokatuta dagoen lekuagatik, Igartza-Oleta kalean hain zuzen, haur-ekintzak egiteko aukera haundiak daude, oso gertu bait ditu San Martinen eta Baseliza Loinaz koermita, Doloreko parkea eta Gudugarretako paseoa.

Haurreskolak garapen fisiko eta psikologiko on bat lortu nahi du, afektibitate eta suztapenaren bidez, bere inguruarekiko portaera positiboa sortu eta ahalik eta gehienezko autonomia aregotzearren.

Beasaingo SEASKA haurreskola ez da oraintxe bertan sortutako gauza bat. Ofizialki bermatuta ez badago ere duela hamar urte funtzionatzen ari den erakunde bat da; heziketa lanean eta garai batetako asistentzia hutsezko etapa hura gainditzen ari dena.

Giro euskaldun baten bidez, "D" delarik erabiltzen dugun eredua, haurraren hizkuntza euskara izan dadin bultzatzen dugu.

Lehen aipatutako guztia aurrera eramateko gehien erabiltzen dugun materiala, umearen gorputza eta helduarena da. Horrez gain zailtasun gabeko material, erakargarria, kutsatu gabekoa eta arriskurik gabekoa izan dadin saitzen gera.

Berak berez esploratzeko, irudikatzeko ta adierazteko dituen ahalmenak garatzeko aukera emanez, eta ekintza sinbolikoaren garapena, aurkikuntza eta jakin nahia bultzatuz.

Honekin batera, haurrak bere ingurua ezagutu eta naturarekin harreman bat lor dadin irteerak egiten ditugu, auzora, Loinazko San Martinen baselizara, Eztandar aldera eta Dolareko parkera, honela saiatuko gara ahalik eta saiakera gehien eduki ditzan eta hauek irakaskuntzarekin loturik egon daitezen.

Hezitzailearen betebeharra prozesuaren gainean egotea eta dinamizatzaile, koordinatzaile eta suztatzaile bezela ekitea da helburu asebetegarri batean bideratuz, irakaskuntza ekintza atsegin bihur dadin giro atsegina sortuz.

LOGSE proiektu legeak 0-6 urte bitarteko heziketa kontenplatzen duenez, ikusten dugu gure etapa, 0-3 urte bitartekoa, eta gure lanak onespen bat lortzen duela.

¡¡¡QUE CHICOS ESTOS!!!

REMER

REMER sigla Babes Zibileko Larrialdietarako Irrati-Sarea da. SOS-DEIAKen antzekoa baina Estatu-mailan Babes Zibileko borondatezko irratizaletuz osatua.

Hondamendi, sute, uholde, istripu, leherketa eta gisako kasuetan komunikazioa ezartzeko sarea. Espainiako Barne-Ministraritzaren zerbitzuetako bat.

Probintzia eremu edo eskualdeetan zatituta dago eta bakoitzean eskualde-buru bat dago laguntzaile batzuekin eta UDAL edo eskatzen duen erakunda zerbitzen da probintzi mailako Babes Zibileko zuzendaritzatik ematen den oinarrizko antolamenduarekin.

Behe Goierrin borondatezko gutxi batzuk gaude Zegama, Idiazabal, Olaberria, Lazkao, Ordizia eta Beasainen. Beasainen dago eskualde-burua. REMERek uhin Laburrekin lan egiten du Estatuan baina VHFrekin ere bai. Probintzian zehazki VHFn gehiena. Bi metroko banda deituaren inguruan.

Nortzurekin jartzen da harremanetan? Suhiltzaile, Gurutze Gorri, Polizia, Icona, Renfe, Udaletxe, Aireportu, MOPU, eta gisakoekin.

18 urtez goitikoz osatuta dago eta gogoa izateaz gainera, zaletu-mailako A edo B adierazlea eduki behar da.

